

*MEMORIA 2025eko irailaren 4a*

# INGURUMEN NEURKETA AURRERATUKO ESKOLA



# AURKIBIDEA

<u>Eskola</u>	03
<u>Inaugurazioa</u>	04
<u>Hitzaldiak</u>	06
<u>Mahai ingurua</u>	08

## »»»» ESKOLA

**Euskadiko ingurumenaren egoera adierazle garrantzitsuen eta ebaluazio metodoen bidez erakusteko asmoz sortu da Ingurumen Neurketa Aurreratuko Eskola.**



Ihobe, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak eta Eustat, Euskal Estatistika Erakundeak bultzatuta, lehen edizio honetan estatistikako eta ingurumen analisiko espezialistak bildu dira, klima aldaketari aurre egiteko adierazle aurreratuek lurralde eta hiri ekintza nola gida dezaketen aztertzeko.

Eskola, jarraitzeko asmoa duenez, urteroko hitzordu gisa planteatzen da, Euskadiko ingurumenaren erradiografia eskaintzeko. Jardunaldia 2025eko irailaren 4an egin zen Donostiako Miramar Jauregian, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Uda Ikastaroen barruan.

# »»»» INAUGURAZIOA | MIRAMAR JAUREGIA

Inaugurazioan, I hobeko, Eustateko eta EHUko ordezkariak azpimarratu zuten garrantzitsua dela ingurumen-adierazle zorrotzak eta eskuragarriak izatea Euskadiko klima eta ingurumen ekintza gidatzeko.



**Idoia Otaegui Aizpurua**

EHUko Udako Ikastaroetako Zuzendari Akademikoa

EHUko Udako Ikastaroetako zuzendari akademikoak ireki zuen Eskolaren lehen edizioa, eta herritarrek ingurumenaren egoerari buruzko informazio egiazkoa eta egiaztatua eskatzen dutela nabarmendu zuen.

“

**“Eskola hau Euskadiko ingurumenaren egoera zorrotz eta modu eskuragarrian erakusteko sortu da”**



**Leire Eldayuen Olleta**

Ingurumen Neurketa Aurreratuko Eskolako zuzendaria

Eskolako zuzendariak azpimarratu zuen ekimena “hobeto neurtzeko, hobeto ulertzeko eta hobeto jarduteko” asmoarekin sortu zela, eta, hala, erabaki informatuagoak eta eraginkorragoak hartzen lagunduko duten adierazleen garapenean sakontzeko.

“

**“Euskadi erreferentzia da ingurumen-neurketa aurreratuan”**

# »»»» INAUGURAZIOA | MIRAMAR JAUREGIA



**Alexander Boto Bastegieta**

Ihobe-Eusko Jaurlaritzako zuzendari nagusia

Alexander Boto Bastegietak adierazi zuen Eskola abian jartzea funtsezko urratsa dela Euskadiri erronka klimatikoari aurre egiteko eraginkorrak diren politikak diseinatzen utziko duten adierazle sendoak emateko, aldi berean ezagutza partekatua eta ekintza koordinatua bultzatuko duten topaguneak izateak duen garrantzia indartuta.



**“Ingurumen adierazle sendoak izatea funtsezkoa da erronka klimatikoari aurre egiteko eraginkorrak diren politikak diseinatzeko”**



**Belén Muñiz Villanueva**

Eustateko zuzendari nagusia

Belen Muñiz Villanuevak bere hitzaldian nabarmendu zuen ingurumen neurketa dela ingurumenaren egoera ezagutzea eta ekintza publikoa bideratzea ahalbidetuko duten datu zorrotz eta egiazkoak lortzeko estatistikak gogor lantzen ari den adarretako bat.



**“Estatistika eta kalitateko datuak funtsezkoak dira ingurumenaren egoera ezagutzeko eta ekintza publikoa gidatzeko”**



**Daniel Montalvo**

Europako Ingurumen Agentzia

Hitzaldi nagusia Daniel Montalvok eman zuen, Europako Ingurumen Agentziako (AEMA) Ekonomia Zirkularraren, Finantzen eta Adierazleen arloko zuzendariak. “Datuetatik konponbideetara” izenburua zuen hitzaldia. Montalvok nabarmendu zuen bi belaunaldi eskasetan gizarteak ingurumenarekin duen harremana nabarmen aldatu dela, eta horrek beharrezkoa egiten du aurrerapen ekonomikoaren eta ingurumen degradazioaren arteko lotura hautsiko duten eredu jasangarriagoetarako trantsizio sozioekonomikoa bizkortzea. Gainera, satellite, biomonitorizazio edo machine learning bidez datu azkarragoak eta zehatzagoak lortzeko teknologiak eta adimen artifizialak duten zeregina defendatu zuen eta ingurumen erronkei aurre egiteko politika eraginkorrak bultzatzeko zientzia, administrazioak eta gizartea lankidetzan aritzeak duen garrantzia azpimarratu zuen.

“

**“Datu sendo eta ulergarriak behar dira eredu jasangarriagoetarako trantsizio sozioekonomikoa bizkortzeko”**

## »»»» HITZALDIAK | MIRAMAR JAUREGIA



**Victoria García Olea**  
Eustat

Victoria García Olea, Eustateko ekoizpen eta analisi estatistikoko zuzendariordeak, ingurumen kontuen funtzionamendua azaldu zuen. Ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremana neurtzen duen sistema dira kontu horiek. García Oleak nabarmendu zuen datu geoespazialeetan oinarritutako ekosistemen kontua laster sartuko dela, kontu horrekin funtsezko zerbitzuak, hala nola biodibertsitatea edo basoen osasuna, neurtu ahal izango baitira. Halaber, datuen ekoizpena eta hedapena arintzeko beharra azpimarratu zuen, politika publikoetan eta gizartean duten erabilgarritasuna hobetzeko.

“**Ingurumen kontuak ingurumen informazioaren zutabe bat dira, eta ekonomiaren eta ingurune naturalaren arteko harremana neurtzeko aukera ematen dute**”



**María García Flecha**  
Ihobe-Eusko Jaurlaritza

Maria García Flechak, Ihobeko Estrategia eta Berrikuntzako zuzendariak, 2025ean Euskadiko ingurumenak duen egoeraren aurrerapena eta ingurumen datuen monitorizazioko erronkak aurkeztu zituen. Ihoberen, Eustaten eta Ingurumen Sailburuordetzaren arteko lankidetzak nabarmendu zuen, txosten sendoak eta eskuragarriak egiteko aukera ematen duelako, hala nola karbono aztarnari buruzkoak, klimari buruzkoak edo lurzoru kutsatuei buruzkoak. Gainera, informazio zientifikoak erabaki eraginkorrek eta portaera aldaketak ekarri behar dituela esan zuen, horren garrantzia azpimarratuta.

“**Beharrezkoa dugu datuek erabaki eraginkorrek eta portaera aldaketak ekartzea, eta ez soilik txosten teknikoetarako erabiltzea**”


## »»»» MAHAI INGURUA | MIRAMAR JAUREGIA

Ingurumen adierazleak neurtzeko eta aztertzeko jardunbide aurreratuei buruzko mahai inguruan, hainbat erakundetako adituak bildu ziren, eta horiek Euskadin ingurumena kudeatzeko tresna eta metodologia berritzaileak aurkeztu zituzten.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Marta Iturribarriak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema aurkeztu zuen, Eustateko Jose Jabier Zurikaraik ingurumen arloko estatistika esperimentalak jorratu zuen, Euskalmeteko Santiago Gaztelumendik meteo-klimaren arloko neurketa teknika aurreratuak eta horien aplikazioak azaldu zituen, AZTIko Manuel Gonzalezek itsas ingurunekeo aldagaien monitorizazioaz hitz egin zuen; eta Nieves Peñak, Tecnalia Fundaziokoak, estres termikoarekiko egokitzapena azaldu zuen Europako biki digitalaren esparruaren barruan.

Parte hartzaileak bat etorri ziren hainbat iturri eta metodologiatako datuak integratzeak duen garrantziaren gainean, ingurumenaren alorreko plangintza eta erabakiak hobetzeko, bai eta zientzia, kudeaketa publikoa eta herritarren arteko lotura erraztuko duten sistema irisgarri eta eguneratuagoetara aurrera egiteko premiaren gainean ere.





**“Ingurumen Neurketa Aurreratuko Eskolak nabarmendu du datu eta adierazle sendoak, ulergarriak eta eskuragarriak izan behar direla klima aldaketari aurre egiteko ekintza publikoa eta herritarren ekintza gidatzeko, eta zientziaren, erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzaz indartzeko”**

# ANTOLATZAILE

